

FITO RODRIGUEZ

SINPOSIUM

hitza zer zen azaltzeko bi idazle zahar aritu ziren idazten: Jenofonte eta Platon, hurrenez hurren.

Izenburu bereko bi idazlan utzi zizkiguten, "*Symposion*", grekoz, beren hizkuntzaz.

Symposion hura bitan banatzen zen, nonbait, eta horri buruz idatzi zuten biek.

Platonen bertsioa ez bide da izkribu zaharrena baina bai, ordea, ezagunena. Hartan, haren beste idazkietan bezala, Sokrates agertzen da *Symposion* delako horren bigarren zatian txantxa metafisikoak botatzen. Jenofontek, berriz, *Symposionen* bigarren zatiaz ari delarik, zirku moduko ikuskizunaz gozatzeko zela zioskun.

Bistan dena da "*Symposion*" deritzaneko hura afari berezia zela Grezia klasi-koan eta, arestian diogunez, bitan banatzen zela. Alde batetik jateko tartea zegoen eta, horretan, ez omen zegoen hitz egiteko ohiturarik. Eta bestetik, bigarrenaldian, funtsean, ardoa edaten zen, mahatsez edo fruitu lehorrez lagundurik, eta mahaikideen artean mintzatu ohi zen.

Dibertimendurako pentsatutako jan osteko garaian, bada, berdin eztabaida zitekeen edo akrobatez gozatu baina, hori bai, ardoaren konpainian betiere.

Ardoa, ordea, ez zen hutsik hartzen, uraz beheratua baizik.

Nahastu gabeko ardoa, aldiz, gosaltzeko hartzen omen zen sasoi hartan. Izan ere gosariak (*acratidzomai*), era berean, ardo hutsa eta lehenengo otordua adierazi nahi zuen batera orduko grekoz. Eguerdiko jatekoari *ariston* deitzen zioten, meriendari *hesperisma*, eta haietan ez zegoen ardoa edateko ohiturarik. Gaueko afariari *deipnon* zeritzoten eta bildutakoak, jakintsuak izatekotan (*deipnosofistak*), elkartzen zirenean *Symposion* bazegoen eta ardoa edanez gauzatzen zen.

Aipatu bezala isilik jaten zen eta, ondoren, anforak eta edalontziak erabiltzen hasten ziren ardoa banatzeko. Hastapenetan zenbat kopa edan behar zen eta, horren arabera, uraz egin beharreko nahasketarako kalkulua prestatzen zen. Mahaikide guztiek, beraz, berdin edaten zuten eta, gaua pasa ahala, ardoa gero eta urtuago zegoen. Hasierako edariak ardo asko bazuen ere, bukaeran, aldiz, ur gehiago zegoen ardoa baino.

Horretaz Platonek, Sokrates dela medio, gizakiak landareen antzera aritu behar duela dio, alegia, gehiegi bustitzea txarra izan arren, itotzea saihestuz, bere neurrian edatea osasungarria dela azpimarratzen zuen aipatu *Symposion* hartan.

Ardo urtua edatea, bada, ekintza kolektiboa zen greziarrena artean.

Antzerako ohitura hartu omen zuten erromatarrek Euripidesek bere *Bakanteak* izeneko antzezlanean kontatzen digunez eta, haien bidez, usadio hori zabalduz joan zen beren inperioak menperatutako lurretan zehar, Iberiatik Kaukasoraino.

Orduko Palestinan, esaterako, ardo urtuaren erabilera arrunta zen eta mota desberdinetako zeremoniak aipatu *Symposion* modukoak ziren, erromatarren aginteak iraun zuen bitartean behintzat. Orain arte azaldutako hau guztia Kristo jaio aurreko kontuak izan arren, Kristo jaio ondorengo ohitura ere izan zela badakigu, jakin.

Tradizio literarioak dioenez (Bibliak), Kanaango eskualdean, adibidez, aramearren arteko ezkontza batean, ardo bataiatu asko eskaini omen zen baina, ohiturak agintzen zuenaren aurka, ardo hori, urez gero eta bustiagoa egon beharrean, hastapenetan bezain sendo eta bezain gustagarri egoteari eutsi zion ospakizunak amaitu arte Kristoak, haurra zelarik, ardoari botatzen zitzaion ura ukitu baitzuen.

Ahozko tradizioak dio, gainera, hurrengo egunean, haur horren aita edo...zenak, bestondokoak jota eta egarriak harturik, ura eskatu zuela etxean baina, konturatu orduko:

–Haurrak ez dezala ukitu, arren!! orro egin zuela.

Horren ondorioz, nonbait, ardoa ardo eta ura ur edateko usadioa hasi zen hedatzen aurrerantzean eta Plinio Zaharrak, *Naturalis Historian*, bere garaiko 185 ardo mota bereizten baditu ere, jadanik, ez du aipatzen uraz ardoa behertzeko joera.

Zientzia gastronomikoetan iraultzaile suertatu den ohitura aldaketa horri buruzko Nazioarteko Sinposiuma antolatzea merezi duelakoan nago.

Leioan, agian...